DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Ogasun Batzordea
Comisión de Hacienda

Ijentea, 1 | Tel. 010 - 943481012 | www.donostia.eus
20003 Donostia / San Sebastián

# 59. AKTA

## Ogasun Batzordea

**Batzar mota:** Ohikoa

**Eguna:** 2026-01-15

**Ordua:** 10:40

**Tokia:** Loretope Aretoa

**Batzordeburua:** Tomas Pascua Martin

**Etorritakoak:**

**Zinegotziak:**

Kerman Orbegozo Uribe

Ana Lopez Loiarte

Idoia Gracia Monge

Olatz Yarza Garagorri

Itziar Iturri Arrazola

Ricardo Burutaran Ferre

Markel Ormazabal Gaztañaga

Ane Oyarbide Ochoa

Juan Marrero Vizcaino

Arantza Gonzalez Garcia

**Beste zinegotzi batzuk:**

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego *(10:58tan bilkuratik joan da)*

Martin Ibabe Eceiza *(11:00etan bertaratu da bilkurara)*

**Beste batzuk:**

Lioba Maiza Recondo, Kontu-hartzailea.

**Idazkaria**: Iñaki Txintxurreta Perdiguero, Idazkari Nagusiak eskuordeturik.

# ACTA Nº 59

## Comisión de Hacienda

**Sesión:** Ordinaria

**Día:** 15-01-2026

**Hora:** 10:40

**Lugar:** Sala Loretope

**Preside:** Tomás Pascua Martín

**Asistentes:**

**Concejales y concejalas:**

Kerman Orbegozo Uribe

Ana López Loiarte

Idoia Gracia Monge

Olatz Yarza Garagorri

Itziar Iturri Arrazola

Ricardo Burutaran Ferré

Markel Ormazabal Gaztañaga

Ane Oyarbide Ochoa

Juan Marrero Vizcaíno

Arantza González García

**Otros concejales y concejalas:**

Garbiñe Alkiza López de Samaniego *(a las 10:58 h abandona la sesión)*

Martín Ibabe Eceiza *(a las 11:00 h se incorpora a la sesión)*

**Otros/Otras:**

Lioba Maiza Recondo, Interventora.

**Secretario**: Iñaki Txintxurreta Perdiguero, por delegación de la Secretaria General.

12447n II

BATZORDEBURUAK bilkura hasi dela adierazi ondoren, ondoko GAI-ZERRENDA hau lantzeari ekin diote:

Declarada abierta la sesión por la PRESIDENCIA, se pasa a desarrollar el siguiente ORDEN DEL DÍA:

**1.- 2025eko abenduaren 9an izandako bileraren akta irakurri eta onartzea, ontzat joz gero.**

**1.- Lectura y aprobación, si procede, del acta de la sesión celebrada el día 9 de diciembre de 2025.**

Bozketa egin eta aho batez onartu dute 58. akta, 2025eko abenduaren 9an izandako bilerari dagokiona.

Se aprueba, por unanimidad, el acta número 58, correspondiente a la sesión celebrada el día 9 de diciembre de 2025.

**2.- Aurrekontu transferentzien eta aldaketen berri ematea.**

**2.- Dar cuenta de transferencias y modificaciones presupuestarias.**

Ricardo Burutaran jaunak eta Lioba Maiza andreak hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

Intervienen en este punto el Sr. Burutaran Ferré y la Sra. Maiza Recondo, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

Batzordea jakitun geratu da.

La Comisión queda enterada.

**3.- 2026ko Aurrekontuaren behin betiko onarpenaren berri ematea.**

**3.- Dar cuenta de la aprobación definitiva del Presupuesto 2026.**

Tomas Pascua eta Kerman Orbegozo jaunek hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

Intervienen en este punto los Sres. Pascua Martín y Orbegozo Uribe, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

Batzordea jakitun geratu da.

La Comisión queda enterada.

**4.- Interpelazioa, EH Bildu Taldeak aurkeztua, Uliako askaldegi-kafetegiari, Basolluari, buruzkoa.**

**4.- Interpelación, presentada por el Grupo EH Bildu, sobre el merendero-cafetería de Ulia, Basollua.**

Garbiñe Alkiza andreak hurrengo interpelazioa azaldu du:

La Sra. Alkiza López de Samaniego expone la siguiente interpelación:

“Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniegok, EH Bildu udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 135. artikulua oinarri, INTERPELAZIO hau egiten dio Mugikortasuneko eta Garraioko zinegotzi ordezkari Kerman Orbegozo jaunari Uliako askaldegi-kafetegiari, Basolluari, buruzkoa, hari buruzko azalpenak ahoz eman ditzan Ogasun Batzordean.

“Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 135 del Reglamento Orgánico del Pleno, la siguiente INTERPELACIÓN relativa al merendero-cafetería de Ulia al señor Kerman Orbegozo, concejal delegado Movilidad y Transportes, para su respuesta oral en la Comisión de Hacienda.

JUSTIFIKAZIOA

2009an Donostiako Udalak 450.000 euro inbertitu zituen Basollua elkartearena zen eraikina berritzeko. 2011n egokitu eta askaldegi-kafetegi zerbitzua emateko lizitazioa egin zuen.

JUSTIFICACIÓN

En el año 2009 el Ayuntamiento de San Sebastián invirtió 450.000 euros en la reforma del edificio propiedad de la Asociación Basollua. En el año 2011 licitó el servicio de merendero-cafetería.

2011n egindako hitzarmenaren arabera, kontzesioa hamar urtetarako egin zen, beste hamar urtez luzatzeko aukerarekin. Baina 2020an, hau da, hamar urteak bete aurretik, kudeatzaileak kontratuari uko egin zion. Horretarako, negozioaren egoera ekonomiko txarra eta kontratuan ezarritako kanona ordaintzeko ezintasuna alegatu zituen. Udal Gobernuaren arabera, zorra 76.000 eurokoa zen 2016, 2017 eta 2018ko kanonengatik eta zabor-tasengatik.

Según el convenio formalizado en 2011, la concesión se otorgó por diez años prorrogables por otros diez. Pero en 2020, es decir, antes de cumplir los diez años, la gerencia renunció al contrato. Para justificar su renuncia, alegó la mala situación económica del negocio y la imposibilidad de abonar el canon establecido en el contrato. Según el Ayuntamiento, la deuda era de 76.000 euros, cantidad correspondiente a los cánones de los años 2016, 2017 y 2018 y a las tasas de basura.

Uliako askari-kafetegia itxi zenetik hiru urte bete ondoren, 2023ko apirilean kudeaketa berrirako lehiaketa atera zuen Udalak. Lehiaketak aurreikusten zuen kudeatzaileak 90.000 euro inguru inbertitu beharko zituela higiezina egokitzeko. Eta gainera, hilean gutxienez 3.000 euroko kanona eta fakturazioaren % 2a ordainduko zituela. Kontzesioa hamar urterako aurreikusita zegoen eta lehenengoa kanona ordaintzetik salbuetsita geratuko litzateke. Lehenengo hamarkada igaro ondoren, kontzesioa urtez urte luzatu ahal izango da, gehienez ere bost urtez.

Transcurridos tres años desde el cierre del merendero-cafetería de Ulia, en abril de 2023, el Ayuntamiento sacó a concurso la nueva gestión. El concurso preveía que el gestor debería invertir unos 90.000 euros para acondicionar el inmueble. Además abonaría un canon mínimo mensual de 3.000 euros más el 2 % de la facturación. La concesión prevista era de diez años y durante el primero, la concesionaria quedaría exenta del pago del canon. Transcurrida la primera década, la concesión podría prorrogarse por períodos anuales por un máximo de cinco años.

Baina Basolluako askaldegia kudeatzeko lehiaketa hutsik gelditu zen. Enpresa bakar bat ere ez zen aurkeztu Uliako ostalaritza instalazioaz arduratzeko.

Sin embargo, el concurso para la gestión del merendero Basollua quedó desierto. Ninguna empresa se presentó para hacerse cargo de la establecimiento hostelero de Ulia.

Horri guztiari buruz galdetu genuen 2023ko irailean eta zinegotzi arduradunak adierazi zuenez, interesatu batzuk Basolluari buruz galdetu zuten, baina ez zen inor aurkeztu.

Preguntamos sobre todo esto en septiembre de 2023 y el concejal delegado nos indicó que, a pesar de que algunos interesados preguntaron por Basollua, nadie se presentó al concurso.

Horri buruz galdetuta, zinegotzi berak aitortu zigun asmoa zela lizitazioaren baldintzak aztertzea, behar zena egokitzea eta lehenbailehen lizitazio berri bat ateratzea beste baldintza berri batzuekin.

Preguntado al respecto, el mismo concejal nos reconoció que la intención era analizar las condiciones de la licitación, adecuar lo necesario y sacar a la mayor brevedad posible una nueva licitación, con nuevas condiciones.

Udal Gobernuak adierazpen horiek egin zituenetik 2 urte pasa dira eta guk dakigula ez da beste lizitazio berririk atera.

Han pasado 2 años desde que el Gobierno Municipal realizó estas declaraciones y por lo que sabemos, no ha habido una nueva licitación.

Basollua, Uliako askaldegi-kafetegia, parke natural batean dago eta garrantzitsua litzateke baldintzak berrikusteko orduan, kontuan izatea emango zaion erabilerak ingurunea errespetatuko duela.

El merendero-cafetería Basollua de Ulia se encuentra en un parque natural y a la hora de revisar las condiciones, sería importante tener en cuenta que el uso al que se destine dicha instalación respete el entorno en el que está situado.

Hau da, zerbitzuaren, naturaren eta ingurunearen artean oreka bat egongo dela bermatu dadin. Ez dadin soilik esplotaziorako gune bilakatu, Uliako parkea errespetatze aldera.

Es decir, que se garantice un equilibrio entre servicio, naturaleza y entorno, para que no se convierta solamente en un espacio de explotación, sino que sea también un espacio en el que se respete el parque de Ulia.

Horregatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako INTERPELAZIO hau egiten du:

Es por ello por lo que la concejala que suscribe presenta la siguiente INTERPELACIÓN:

- Zer dela eta ez du Udal Gobernuak Uliako

- ¿Por qué motivo el Gobierno Municipal no

askaldegi-kafetegiaren lizitazio berririk atera? Noiz du asmoa lizitazio berri bat ateratzeko?

– Zer dela eta ez ditu Udal Gobernuak Uliako askaldegi-kafetegiaren lehiaketan ezarritako baldintzak berrikusi? Ba al du asmorik lehiaketan ezarritako baldintzak aldatzeko edo malgutzeko? Noiz du asmoa lan hau egiteko?

– Zer asmo du orain Udal Gobernuak Uliako askaldegi-kafetegiarekin?

Donostian, 2026ko urtarrilaren 8an

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

Kerman Orbegozo jaunak eta Garbiñe Alkiza andreak hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

ha sacado una nueva licitación del merendero-cafetería de Ulia? ¿Cuándo tiene previsto sacar una nueva licitación?

– ¿Por qué motivo no ha revisado el Gobierno Municipal las condiciones establecidas en el concurso de la cafetería-merendero de Ulia? ¿Tiene intención de modificar o flexibilizar las condiciones establecidas en el concurso? ¿Cuándo tiene previsto hacer esto?

– ¿Tiene alguna intención el Gobierno Municipal con respecto al merendero-cafetería de Ulia?

San Sebastián, a 8 de enero de 2026

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego
concejala del grupo municipal EH Bildu".

Intervienen en este punto el Sr. Orbegozo Uribe y la Sra. Alkiza López de Samaniego, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

*(10:58an Garbiñe Alkiza andrea bilkuratik irten da)*

*(A las 10:58 h se retira la Sra. Alkiza López de Samaniego de la sesión)*

**5.- Bozeramaileen Batzordeak bidalitako ekimenak, baldin bada.**

**5.1- Interpelazioa, PP Taldeak aurkeztua, Donostia Ospitalearen parean dagoen kiosko zaharraren gainean.**

Tomas Pascua jaunak hurrengo interpelazioa azaldu du:

"Talde Popularreko zinegotzi Borja Corominas Fisasek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 134. artikulua oinarri, Donostia Ospitalearen parean dagoen kiosko zaharrari buruzko INTERPELAZIO hau aurkezten dio Jon Insausti alkateari, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) aztertzeko.

JUSTIFIKAZIOA

Donostia Ospitaleko sarreraren parean dagoen aldizkarien salmenta-kioskoak urteak daramatza itxita, eta orain era guztietako iragarkiak, pankartak eta pintadak jartzeko panel bihurtu da. Azken batean, zikinkeria-gune bat da, eta oso irudi txarra ematen du gurea bezalako erreferentziazko ospitale baten aurrean.

Urteak igaro direnez, badirudi kiosko hori ez dela berriro irekiko, eta, beraz, uste dugu eremu hori

**5.- Iniciativas remitidas, en su caso, por la Junta de Portavoces.**

**5.1- Interpelación, presentada por el Grupo PP, sobre el antiguo kiosko ubicado frente al Hospital Donostia.**

El Sr. Pascua Martín expone la siguiente interpelación:

"Borja Corominas Fisas Concejal del Grupo Popular, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al Alcalde, D. Jon Insausti, en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos, sobre el antiguo kiosko ubicado frente al Hospital Donostia.

JUSTIFICACIÓN

El kiosko de venta de revistas ubicado en el acceso al Hospital Donostia lleva años cerrado y ahora se ha "convertido" en un panel donde se ponen todo tipo de anuncios, pancartas y pintadas. En definitiva, un foco de suciedad y que da muy mala imagen frente a un hospital de referencia como el nuestro.

Con el paso de los años todo indica que este kiosko no volverá a abrir por lo que consideremos

beste modu batera erabil daitekeela, eta banku batzuk ere jar daitezkeela pazienteak bisitatzera datozen edo autobusaren zain dauden herritarrentzat.

Hori dela eta, hauxe da gure INTERPELAZIOA

1. Zergatik ez da kentzen abandonatutako kioskoa Donostia Ospitaleko sarreratik?

2. Ba al duzue hori egiteko asmorik?

3. Hala bada, noiz?

4. Erantzuna ezezkoa bada, zergatik?

5. Kioskoa kenduz gero, gobernu-taldeak ba al du asmorik eremu horretan bankuren bat jartzeko?

6. Hala bada, noiz?

Donostia, 2026ko urtarrilaren 8a

Borja Corominas Fisas
Udaleko Talde Popularraren bozeramailea".

Kerman Orbegozo jaunak hitz egin du puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

*(11:00etan Martin Ibabe jauna bertaratu da bilkurara)*

**<u>5.2- Interpelazioa, PP Taldeak aurkeztua, Egiako Komisaria Mistoaren gainean.</u>**

Tomas Pascua jaunak hurrengo interpelazioa azaldu du:

"Vanesa Vélez De Pablos Talde Popularreko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 134. artikuluaren babesean, Egian komisaria misto bat jartzeko proiektuari buruzko INTERPELAZIO hau aurkezten dio Jon Insausti Maisterrena alkateari, Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean.

JUSTIFIKAZIOA

Beste behin ere, komunikabideen bitartez jakin dugu atzo alkateak eta Segurtasuneko sailburuak izandako bileraren berri, eta, hartan, besteak beste, Egiako komisaria mistoaren proiektua jorratu zutela. Dirudienez, proiektu horren obrak 2027rako amaituta egongo dira.

que esta zona podría usarse de otra manera e incluso poner algunos bancos para los ciudadanos que acuden a realizar visitas a enfermos o las personas que esperan al autobús.

Por estos motivos presentamos la siguiente INTERPELACIÓN

1. ¿Cuáles son los motivos por los que no se retira el kiosko abandonado del acceso al Hospital Donostia?
2. ¿Tienen intención de hacerlo?

3. En caso afirmativo ¿Cuándo?

4. En caso negativo ¿Cuáles son las razones?

5. ¿Tiene intención el equipo de gobierno de colocar algún banco en esa zona en el supuesto que se quite el kiosko?

6. En caso afirmativo ¿cuándo?

En San Sebastián, a 8 de enero de 2026

Borja Corominas Fisas
Portavoz del Grupo Municipal Popular".

Interviene en este punto el Sr. Orbegozo Uribe, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

*(A las 11:00 h se incorpora el Sr. Ibabe Eceiza a la sesión)*

**<u>5.2.- Interpelación, presentada por el Grupo PP, sobre la Comisaría Mixta de Egia.</u>**

El Sr. Pascua Martín expone la siguiente interpelación:

"Vanesa Vélez De Pablos, Concejala del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al Alcalde, D. Jon Insausti Martiarena, en la Comisión de Servicio a las Personas, sobre la Comisaría Mixta de Egia.

JUSTIFICACIÓN

Hemos tenido conocimiento, una vez más, por los medios de comunicación, de la reunión celebrada ayer entre el Alcalde y el Consejero de Seguridad y que en ella trataron, entre otras cuestiones, el proyecto de comisaría mixta en Egia, cuyas obras, parece, estarán finalizadas para 2027.

Egiako komisariaren proiektua egiteko 2025eko aurrekontuan sartutako 125.000 euroak ez dira erabili. Esan ziguten diru hori 2026ko aurrekontuan sartuko zutela, proiektua idazteko, eta, soberakinik izanez gero, 2026rako aurrekontuan sartutako 950.000 euroei gehituko zitzaiola.

Albistean ez da ezer esaten Udaltzaingoaren ekialdeko barrutiko komisariordetzari buruz, baina gobernu-programan jasotzen da proiektu hori ere.

Hori dela eta, hauxe da gure

INTERPELAZIOA

1. Gobernu-taldeak zergatik ez du Egiako komisariaren proiektua lizitatu 2025 guztian?

2. Gobernu-taldeak ba al du proiektu hori lehenbailehen lizitatzeko asmorik?

3. Hala bada, noiz?

4. Hala ez bada, zergatik?

5. Zehaztu al da zer behar dituen eta zer baldintza bete behar dituen Egiako komisariak, dela atzoko bileran, dela bi kidegoek aurretik egindako bileraren batean?

6. Gobernu-taldeak ba al du Egiako komisaria sortzeko eta martxan jartzeko egutegi osoa, joan den urriko politika orokorreko osoko bilkuran agindu bezala?

7. Erantzuna baiezkoa bada, gainerako talde politikoei helaraziko diguzue, mesedez?

8. Hala ez bada, zergatik?

9. Gobernu-taldeak pentsatu al du 2023-2027 gobernu-programa betetzea eta Udaltzaingoaren komisariordetza bat irekitzea ekialdeko barrutian?

10. Hala bada, non?, noiz?, zer aurrekonturekin?

11. Hala ez bada, zergatik?

Donostia, 2026ko urtarrilaren 8a

Vanesa Vélez De Pablos
PP udal-taldeko zinegotzia".

Los 125.000€ presupuestados para 2025 para realizar el proyecto de la Comisaría de Egia no se han ejecutado. Nos dijeron que se incorporarían el presupuesto de 2026 para la redacción del proyecto y que el remanente, si lo hubiera, se añadiría a los 950.000€ presupuestados para 2026.

En la noticia no se hace mención alguna sobre la Subcomisaría de la Guardia Municipal en el Distrito Este, que el Programa de Gobierno recoge.

Por esos motivos presentamos la siguiente:

INTERPELACIÓN

1. ¿Cuáles son los motivos por los que el Equipo de Gobierno no ha licitado el proyecto de la Comisaría de Egia en todo 2025?

2. ¿Tiene el equipo de gobierno la intención de licitarlo a la mayor brevedad?

3. En caso afirmativo, ¿cuándo?

4. En caso negativo, ¿por qué?

5. ¿Se han especificado las necesidades y requisitos que debe cumplir la Comisaría de Egia, bien en la reunión de ayer, bien en alguna otra reunión anterior mantenida entre ambos cuerpos?

6. ¿Tiene el equipo de gobierno elaborado un calendario completo de la creación y puesta en marcha de la Comisaría de Egia, como se comprometió en el Pleno de Política General del pasado mes de octubre?

7. En caso afirmativo, ¿podría compartirlo con los demás grupos políticos, por favor?

8. En caso negativo, ¿por qué?

9. ¿Tiene el equipo de gobierno pensado cumplir con su programa de gobierno 2023-2027 y abrir una subcomisaría de la Guardia Municipal en el Distrito Este?

10. En caso afirmativo, ¿dónde?, ¿cuándo?, ¿con qué presupuesto?

11. En caso negativo, ¿por qué?

En San Sebastián, a 8 de enero de 2026

Vanesa Vélez De Pablos
Concejala Grupo Municipal PP".

Martin Ibabe eta Tomas Pascua jaunek hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

Intervienen en este punto los Sres. Ibabe Eceiza y Pascua Martín, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

---------------

Eta bestelako aztergairik ez dagoela, Batzordeburuak goiburuan adierazitako eguneko hamaikak eta bostean amaitutzat jo du; eta NIK, idazkari gisa, horren guztiaren FEDE EMATEN DUT.

Y no habiendo más asuntos, el Presidente declara terminada la sesión a las once horas y cinco minutos de la fecha expresada en el encabezamiento; de todo lo cual, YO, EL SECRETARIO, DOY FE.

O.E./Vº Bº
BATZORDEBURUA / EL PRESIDENTE

Jabier Vitoria Roma